



GOIERRITARRA



Neguko loreak

matrikula zaitez

Goierriko Ikastola batean



Denon eskura



DOAKO IRAKASKUNTZA

Ikastola publikoa

DOAKO ESKOLA GARRAIOA

Ibilia Beasaingo hiri-areatik eginez, eta eskualdeko herrietatik ere bai DBHko ikasleen kasuan.

HAURTZAINDEGI ZERBITZUA DOAN

Goizeko 7,30etatik
arratsaldeko 18,30etara

JANTOKI SUBENTZIONATUA

Bazkaria, gehi zaintzeko zerbitzua eta eguerdiko entretenimendua 400 pta. kostatzen dira ikasle eta eguneko.

HILEKO KUOTA


Ikasle bakoitzak hilean ordaindu beharreko batezbesteko kuota 1.400 pta.koa da; kuota horrekin eskola-materialeko gastuak, eskolako eta eskolaz kanpoko aseguruak eta bestelako jarduerak osagarriak ordaintzen dira.

Alkartasuna Lizeoaren oinarria den ikastola-proiektuak bete betean darrai irakaskuntzan hogeita hamar urte pasatxo egin ondoren.

Ekimen hau martxan jarri zuten gurasoen asmoa hauxe zen, hots, kalitatezko irakaskuntza euskaraz **ikasle guztien esku** jartzea.

Alkartasuna Lizeoaren hezkuntz proiektuak oso harrera ona izan du beasaindarren eta goierritarren artean.

Horri esker oso sakon errotu da, bere ia 700 ikasleekin, **Beasainen ikasle gehien dituen ikastetxea** bilakatuz.



ALKARTASUNA LIZEOA
IKASTOLA - BEASAIN

Foru 8 - 20200 Tf. 943 88 26 84 Faxe 943 88 18 71 E-mail: alkarlizeoa@facilnet.es

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Koldo Urrestarazu, Edurne Albi-
zu, Josune Aldabe, Aitor Arrue,
Gabino Murua, Nagore Goiburu,
Josune Amondarain, Joxepa Ma-
dariaga, Ana Cristina Olano.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.800 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN

**Adur Ezenarro, 'Amodiozko gutunen
Berrigara lehiaketako' irabazlea**



Aurreko alean aurreratu
genuen bezala, Adur Eze-
narro ordiziarrek Bergara-
ko Jardun elkarteak antola-
tutako 'Amodiozko Gutu-
nen VI. Berrigara Lehiake-
ta' irabazi zuen. San Ba-
lentin egunean egin zen sa-
ri-banaketa eta ordur ge-
roz, komunikabideok gai-
netik ezin kendurik dabil
Adur.

Arkitektura ikasketak
egiten ari da Adur Ezena-
rro. Aurkeztu duen amo-
diozko gutunaren ildoaz iaz
pentsatu zuen. Orduan
denborarik ez, eta aurten
aurkeztu du. Aurretik ere
parte hartua da lehiaketa
honetan bertan.

Gai originalaren bila jo-
an zen Adur. 1847ko Laz-
kaoko moja komentuko

Maria moja-
ren eta Joxe
Inazio apaiza-
ren arteko
"aitortza
kontuak"
kontakten di-
tu 'Serora'
izeneko
eskutitzean.
Jose Inazio
apaizarekin
aitortzen da
Maria. Moja-
ren inozen-

tziar baliatuz, aitortza sexu
harremanean oinarritzen
da. Mojaren inozentzia
azaldu nahi izan du Adu-
rrek. "Mojak ez dauka
inongo prejuiziorik eta ho-
rrekin jokatu nahi izan dut.
Pertsona batek nola joka
dezakeen ez badauka au-
rretik inolako perjuizio-
rik". Eskutitza irakurri
duen jende askok kritika
moduan hartu du testua.
Baina ez zen hori Adurren
asmoa.

Amodio gutunik ez du
idatzi orain artean Adu-
rrek. Baina eskutitzak
idazten zalea da.

75.000 pezetako saria
jaso du ordiziarrek. Dato-
rren urterako eskutitzerako
gaia pentsatua omen dau-
ka.

BOTA BERTSOA



Aitziber Garmendia
(Goierriko bertso-eskolako
ikaslea)

Negua ero

*Doinua: zortziko
nagusiko edozein*

Hogeita hamar bat gradu neguan
eta udan berriz zero
udaberriko eguraldiak
hasi dira honezkero
raza guztiko eguraldiak
izan ditugu bezero
aurten negua etorri zaigu
buru arin eta ero.

Urtarrilean zuhaitzak txuriz
jantzi ziren egun batez
ta berehala biluztu ere
eguzki izpien kaltez
haizea ere etorri zaigu
eta euria, nola ez
hauek guztiak bat egin dute
negu ero baten bidez.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

BEASAINEN... ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA DENONTZAT

BAINA, ZER DA
ETXEZ ETXEKO
LAGUNTZA?

ZU EDO ZURE FAMILIAKO BAT EZINEAN
BADABIL EDO ARAZOAK BADITU...

- *Jaikitzen eta oheratzen.*
- *Garbitzen eta bainatzen.*
- *Janzten eta eranzten.*
- *Jaten.*

ZENBAT
KOSTATZEN
DA?

850 PZTA/ORDUKO
(egunean 3 orduko
zerbitzua gehienera)

- *Eta zure diru-sarrerak
behar adinakoak
ez badira deitu*

80 52 38

*telefonora edo
etorri Beasaingo
Udaletxera.*

Lagundu zaitzakegu!

INTERESATUKO ZAIZU

Deitu 80 52 38
telefonora eta
berri emango dizugu.

BAITA
ERE...

- *Ohea egin,
erosketak egin,
eta abar.*



GIZARTE
ONGIZATEA



BEASAINGO UDALA

TXANDAKA

Lanak ematen dizkigun lanak!

Lana duena lana duelako, langabe-
zian dagoena lanik ez duelako,
etxeakoandreak... asko geratu gabe
lanean aritu arren 'ez duela lanik
egiten' esan beharra daukatelako,
ikasleak lana egiteagatik kobratu ez, baizik eta ordaindu
beharra daukatelako...; lana dela eta ez dela, denok gara
kexu.

Geure bizitzan ordu ikaragarri betetzen, kentzen, lapur-
tzen dizkigulako, lanaren sokari tira egin behar diogu, el-
karrizketak sortuz eta lan-baldintzak hobetze aldera. Maiz
leku eta leku askotan entzuten da lana dugunok ordu gu-
txiago eginez gero, ez dutenentzat izango litzatekeela; hau
da, lana banatu behar dela. Ederki, konforme eta ni prest.
Nire inguruko asko ere hala daude, lana banatzearekin
ados, baina eta mundu honetako sokak mugitzen dituzte-
nak, mundua maneiatzen dutenak, ados ote daude lan-ba-
naketarekin?

Ea, pentsa dezagun: denbora libre gehiago izango bage-
nu eta kontsumitzen eta enbarazorik sortzen ez duen ai-
saldian emango bagenu denbora hori, ondo. Baina eta
pentsatzen jarri, antolatu eta soldatarik kobratzen ez den
lanean hasiko bagina? Adibidez, egunean pare bat ordutan
politikari buruz eztabaidatu eta lanean hasiko bagina herri
guztietan, geldirik egon ezin garen lagunez osatutako tal-
detxoak? Eta ez gaitezen esaten hasi, orain, politika alde
batera utzi behar dugula, guztia da eta politika.

Hori eginez gero, izugarri jantziko genuke geure burua,
geure ingurua aberastuko genuke eta informatuagoak
egongo ginatke. Eta badakigu, ondo informatutako per-
tsona ia manea ezina da... Hortxe dago kokka! Ondo in-
formatuak eta manea ezinak bihurtzen bagara, manea-
tzaileak zer egin behar du gurekin?

Joxepa Madariaga



Griperik pasatu al duzu aurten?

Alberto Bueno

**26 urte, diseinatzailea
beasaindarra**



Urteak dira griperik harrapatu ez du-
dala. Ez dakit zergatik izango den,
agian txikitan babarrun eta odolki as-
ko jan nituelako...

Jon Kortaberria

**30 urte, irakaslea
beasaindarra**

Pasatu dut bai. Neskalgunak itsatsi
zidan eta gero nik berriz berari. Bai-
na sendatu gara. Denbora izanez ge-
ro, onena pasatzen uztea da, ohean
sartuta. Bestela, betiko sendagaiak
erabili behar.



Joanito Cia

**67 urte, erretiratua
Beasaingoa**



Nahiko poliki pasatu dut aurten. Me-
dikuarengana ez naiz joaten. Gripea-
rentzako erremediorik onena, kafesne
beroa koñak piska batekin hartu, ohe-
an sartu eta izerdia botatzea da.



**ORDIZIAKO IKASTETXE PUBLIKOA
URDANETA - OIANGUREN**

- Kalitatezko heziketa B eta D ereduetan
- 2 - 19 urte zentru berean
- Esperientzia
- Metodologi berritzaile eta aktiboa
- Eleaniztasuna (Ingelera, frantsesa, alemaniera...)
- Aukera zabala eta gaurkotua
- Jangela, garraioa, kirola, euskal ohiturak...

**IZEN EMATEA
OTSAILAREN 27tik AURRERA**

Informazioa: 88 27 80 - 16 12 68 - 88 08 62



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✗ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✗ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA

ZINEA

GOIENIZ:

Martxoak 12, 'Amarcord', 21:00etan, Usurbe Antzokian.



BEASAIN:

Titanic. Ostirala 27: 22:00; larunbata 28: 18:00, 22:00; igandea 1: 18:00 - 22:00. (Emanaldi numeratuak izango dira larunbatekoak eta igandekoak. Sarrerak aurrez eros daitezke).



'Amarcord'

F. Fellini (Italia, 1973)

Fellini bere haurtzarora itzuliko da eta orduko zirrarak eta oroitzapenak freskatuz garaiko historia eta bizimodu herritarra, irudikatuko ditu, maitekiro eta umoretsu. Eszena apartek (faszistak kalean korrika, estankoko emakume bulartsuak umearengan piztutako sukarra) eta Nino Rota laguntzaile fin eta hurbilaren musika ahaztezinak neurria ematen diote lan ospetsu honi, filme atzeritar onenaren Oskar saria jaso zuena.

Fellinik zera dio: "Porno-grafia ez zait batere interesatzen. Aitzitik, erotismoa hurbilago eta erakargarriago ikusten dut. Nolabait esateko erlijioaren pareko garrantzia du; biak daude bizitzari eta giza izaerari lotuta. Porno-grafia guztiz bestelakoa da, erotismoaren hondarra bere funtsezko ezaugarriak kendu eta gero... utikan!".

ANTZERKIA

BEASAIN:

Martxoak 4, Oihulari klown taldeak 'La espera' lana aurkeztuko du, Usurbe Antzokian, 17:00etan, Asmubek antolatuta. Dohainik.

Martxoak 6, Antzerki Garaia: Lom taldeak 'Imprebis' lana aurkeztuko du, Usurbe Antzokian, 22:15etan. (Gaztelera). Sarrera: 750 pezeta.

ORDIZIA:

Otsailak 27, Antzerki Garaia: Maskarada taldeak 'Nerudaren Postaria' lana aurkeztuko du, Herri Antzokian, 22:15etan. (Euskaraz). Sarrera: 750 pezeta.

IKUSENTZUNEZKOAK

ORDIZIA:

Martxoak 5, Koke Lasaren ikusentzunezkoa, Barrenan, 20:00etan: 'Manaslu: Izpirituaren bizilekua'.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Otsailaren 27tik martxoaren 8ra arte, Asmubere egindako eskulanen erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa-aretoan.

Otsailaren 28tik martxoaren 13ra, IV. Aterpe pintura lehiaketan aurkeztutako lanen erakusketa, Aterpe tabernan.

ORDIZIA:

Otsailaren 27tik martxoaren 13ra arte, Ramon Iziarren Argazki Ehiza erakusketa, Barrenan.

HITZALDIAK

OLABERRIA:

Martxoak 2, Alfredo Elortzaren hitzaldia: Osasun bideak. Bikario-etxean, 21:00etan.

Martxoak 5, Amaia Vazquezaren hitzaldia: Haur Hezkuntza. 15:00etan, Bikario-etxean.



GENERALI Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

interlang
International Language Services



Inglés, frantses eta aleman ikastaroak gure eskola eta enpresetan



Haur, gazte eta helduentzako hizkuntz ikastaroak atzerrian, lan praktika, kirol eta bestelako ekintza askorerkin



Izulpengintza eta enpresatarako hizkuntz zerbitzu orokorrak
Au-Pair: gestio azkarra eta kontu haundiz aukeratutako familiak



Lan esperientzia atzerrian: Irakaslegoa eta begiraleak U.S.A.-n; ostalaritza eta abar



ORDIZIA
Elkano, 8
☎ 88 11 37

BEASAIN
JM Iturrioz, 11
☎ 16 05 72

DONOSTIA
Kolon, 5
☎ 27 81 61

ZUMARRAGA
Iparragirre, 8
☎ 72 22 23

Martxoak 5, Julian Bereziartuaren hitzaldia: Elikadura eta osasuna. Bikario-etxean, 21:00etan.

ORDIZIA:

Martxoak 4, Euskal Herriaren eta Goierriren etorkizuna aztergai, Gaztetxean, 19:30etan, AHTren aurkako asanbladak antolatutarik.

Martxoak 11, 'Emakumearen egoera eta maila publikoan bere partehartzea' gaiari buruzko mahaingurua, Barrenan, 18:00etan.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Martxoak 1: Esparrura.

Martxoak 8: Beasain-Gaintza-Beasain.

Idiazabalgo mendizaleak:

Martxoak 8: Zerain-Arripilaeta-Arranoaitz.

Otsailak 21-22: Eskia Panticosa-Formigalen.

'Sexulapikoa' liburuaren aurkezpena, Baga Bigan

Luis Elberdin sexologoak idatzi duen 'Sexulapikoa' liburuaren aurkezpena egingo du gaur, otsailak 27, Ordiziako Baga Biga kulturdendan, 20:00etan. Jarraian, sexuari buruzko hitzaldia edo mahaingurua izango da.

Argazkigintza ikastaroa

Argazkigintza sakontzeko ikastaroa antolatu du Beasaingo Argizpi Argazkizale Elkartek. Martxoaren 2an hasiko da, eta astelehen eta asteazkenetan, 19:00etatik 21:00etara izango da Urbietara erakuntzan. Ikasle kopurua mugatua da eta lehentasuna bazkideek eta Beasainen bizi direnek izango dute. Gema Arrugaetak emango du ikastaroa. Izena emateko orriak eta informazio gehiago Udaleko Kultura Sailean duzue.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 88 05 87.

Otsailak 28- Martxoak 1: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39- Beasain). 88 05 87.

Martxoak 7-8: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia) 882628.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Bilboko pisu bat osatzeko pertsona bat behar da. 88 21 47. Larraitz.

Salerosketak:

☐ 75 m²-ko lokala salgai, Beasaingo Oriamendi kalean. 88 00 65.

☐ Ezkon-logela salgai. Berria. 88 00 65.

☐ Boxer arrazakotxakurkumeak salgai. Pedigri onekoak. Mikel. 882927. Iluntzetan deitu.

☐ Artzai txakur kumeak salgai. Prezio onean. 885102.

☐ Piaggio NRG motorra salgai. Urez errefrigeratua, 1800 km, aseguruabarne. Axier. 88 60 30.

☐ Kutxa erregistratzailea salgai. Casio 15 CR, DL1817 modelo. 33.000 pezetan. 88 10 35.

☐ Vaillant berogailua salgai. Modu onean, Berria. 10 litrokoa. 88 99 32.

☐ Opel Corsa autoa salgai, SS-2036-AT matriku-

laduna. Berri-berria. Oso modu onean. 72 12 11. Axun.

☐ Yamaha Virago 1100 motorra salgai. Egoera onean. Alberto 68 34 31. Gauean deitu.

Lana:

☐ Neska bat prest dago etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Esperientziaduna. 16 00 99.

Bestelakoak:

☐ 4 modelo behar ditugu transformaziorako (moztu, kolorea eman edo moldeatua egiteko). Dohainik. Maider. 80 60 98.

☐ Eskoriatzan ikasten dugun hiru neska gara eta eguneroko joan-etorritako Zumarraga-Gasteiz norabidea egiten duten kotxeekin harremanetan jarri nahi genuke, garraio publiko ezagatik. Oztopo handienak Zumarragara bueltatzeko ditugu, ordubatean klasetik aterata. Ordaintzeko prest geundeko. Julene 72 24 57.



USURBE ZENTROA

• Hernia diskala (Tratamendu ez kirurgikoa)

• Lunbagoa, ziatika

• Kirol lesioak

• Errehabilitazioa

☎ 16 13 39

Andra Mari, 9-1.
BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Banakako laguntza
- ✓ Talde txikiak

Informazioa:

☎ 16 01 20 Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN

Segurako Udalak herri-kontsultari uko

Segurako barianteari buruzko arazoan Udalaren gehiengoak (EAJ-PNV eta EA alderdiak) hartutako jarrerarekin bat ez gentozelako, firma bilketa bat antolatu genuen herritarren artean abenduaren hasieran. Firma horien bidez herri-kontsulta egitea eskatzen zitzaion Udalari. Gure ustez, horrela, herritarrek, Udalak berak posibleztat jo zituen bi proposamenen informazio zabala izango zuketena eta guztiontzat hain garrantzitsua den arazoaren aurrean zeresana izango zuten. 400 herritar inguruk eskatzen genuen kontsulta hori egitea.

Orain, bi hilabete beranduago, jaso dugu Udalaren erantzuna: ez omen dute herri-kontsulta hori egingo. Zaila delako 400 herritarren eskaera bati ezetza ematea, eta aldi berean demokratikoki direla mantentzea, ahalegindu dira erabakiaren arrazoiak ematen, eta hauetako gehienak zein baino zein eskasagoak dira, eta izenpe-tzaileak ideologi politiko batekin lotzera ere iritsi dira. Lotsagarria. Beldurra ote herria informatzeari eta kontsultaren emaitzari? Gu prest geunden eta gaude herriaren gehiengoak erabakitakoa onartzeko.

Esan digute beraiek hauteskundeetan demokratikoki aukeratuak izan zirela eta ez dutela zergatik herriari kontsulta eginik. Guk ez diegu sekula zalantzan jarri errepresentazio hori eta badakigu

herri-kontsulta konbokatze-ko obligaziorik ez dutela; ez zuten obligazio hori ere azken urteetan gure inguruko udalek (Ormaiztegi, Ataun, Idiazabal eta abarrek) arazo desberdinen aurrean herri-kontsultak bultzatu zituztenean, eta udalkide haiek ere hauteskundeetan aukeratuak izan ziren. Baina badirudi demokrazia partizipatiboari buruz beste ikuspegi bat zutela. Gure Udaletxeko gehiengoaren ustez, demokrazia, botoa ematen dugun momentuan bukatzen da edozein erabakiren aurrean.

Gure aldetik zehaztasun hauek egin nahi genituzke:

1.- Herri-kontsulta eskatzeko pausuak eman baditugu, Madurako barianteari eta Zerkaldeko trabesiaren eraikuntzak (azken hau 1997ko urtarrileko aurre-proiektuan kontenplatu) bikoiztasun bat suposatzen dutenez, dirua trabesiara pasatzeko kontsultak eta Zerkaldeko trabesiaren azterketa tekniko-ekonomikoa Udalak berak egin dituelako izan da (Madurako barianteari kostua 400 milioi, Zerkaldekoarena 275 milioi). Ekintza hauek burutu bazituen Udalak, Zerkaldeko soluzioari bideragarritasuna ikusten ziolako izango zen.

2.- Inguruko beste herri batzuetan Zerkaldekoaren tankerako herri-trabesia bidez eman diote irtenbidea trafiko arazoari. Segurako udalaren gehiengoak Madurako barianteari alde aukera hartzeko argudio bakarra, Diputazioak bariante hori ba-

karrik egiteko dirua mahai gainean jarri duelako izan da, eta Udalak ez du indarrik egin Diputazioaren jarrera horren aurka joateko.

3.- Udalaren gehiengoak komunikatu batean Madurako barianteak "herriaren bilakaera urbanistiko, ekonomiko eta sozial berriak aurrera eramateko aukera eskainiko dizkigula" esan badu ere, guk galdetzen dugu: Zein dira herriaren garapenerako eskaintzen dizkiguten aukera horiek? Guri ez digute inongo proiekturik aurkeztu, eta beraz, komunikatuak dioena hitz jario hutsa besterik ez da.

Barianteak Maduran kalte-tutako lur-jabeak (Segura)

Kaixo, San Sebastian familia!

Gaur, 1998ko otsailak 10, goizeko 7.15etan dei bat jaso dut. Fakultatera joateko prestatzen ari nintzen bitartean, Yoli, nire lagunaren ahots dardartia entzun dut. Zer gertatzen den galdetu diodanean, hauxe izan da berak erantzundakoa: Irene, etxea erre zaigu! Nire bihotzak kolpe handi bat sentitu du eta egia esan, ez nekien zer esan... Sentitzen dudala esan diot, zer esango zenuke bestela?

Hezkuntzaren politikako azterketa zuen gaur eta ongi prestatua gainera! Baina hau gutxienezkoa da, garrantzitsua, etxerik gabe geratu direla da.

Orain, ez dakit zein izan den sutearen arrazoiak, baina

zorte txarra izan den heinean, beraiek bizirik irten dira; eta ez da gutxi! Egoera dela eta, ez dakit zein motako sentimenduak edukiko dituzten (imagina dezaket nola-bait).

Yoli eta bere familia, Itsasondoren bizi dira, Beko-kalen. Etxe polita zuten noski! Pena da gertatu dena baina bizitza honek ekarriko diguna nork daki? Nork esango digu bihar zein egoeratan aurkituko garen? Erantzunik gabeko milaka galdera datozkit burura...

Gauza triste guztiei bere alderdi positiboa aurkitu behar diogu asko kostata ere; baina bestela zein irtenbide geratzen zaigu? Zein zentzu eman gure bizitzari?

Badakigu honelako gauza bat ez duela inork merezi, baina famili honek gutxiago! Famili ona, langilea eta oso jatorra da.

Eskutitz hau idazten dut, Josbe eta Eliren laguntzaz, jakin dezaten hor gaudela edozer gauza egiteko eta gure laguntasun osoa eskaintzeko. Badakite asko maite ditugula eta minduta gaudela gertatu zaienagatik. Azken finean, zertarako gaude lagunak?

Orain arazo asko edukiko dituzte eta dagokionari, mesedez, eskatuko genioke, ahalik eta bere esku dagoen eran, laguntzea eta lehenbait lehen amaitzea; nahikoa izan dute bere etxea galtzearekin.

Josebe Diaz, Irene Arze, Eli Lopez (Ordizia)

Argazkiaren honen edizioa laguntza.

En la edición de esta publicación colabora.



fundazioa
fundación

ERREZETA



*Lontxo Ormazabal
Korta erretegia
Gabiria*

SAGAR PUDING-a

Osagaiak: golden sagarrak, ardo txuria, azukrea, 5 arrautza, litro erdi bat esne, marrubiak eta esnegain likidua.

Kazuela batean golden sagarrak, ardo txuria eta 4 goilarakada azukre jarri. Sagarrak egosi, bigundu arte. Puding-a egiteko molde batera bota.

Bestetik, 5 arrautza, litro erdi bat esne eta 4 goilarakada azukre, dena nahastu, eskuz eta sagarren gainera bota. Labean sartu eta flan bezala egiten denean, atera.

Zerbitzatzeko garaian, gaintik marrubi krema bota. Marrubi krema egiteko, marrubiak, esnegain likidua eta azukrea batidorian batitu. Kantitateak norberaren gusto eta beharren arabera bota.

AHOLKUA



Ana Cristina Olano
Siboney edergintza

Zure estetizistaren aholkuak

koki ahultasuna azaltzen da, batez ere, aurpegian. Zure estetizistarekin kontsultatzeko gomendatzen dizut, aldaketa hauek ahal diren neurrian zuzentzeko. Bera izango da aholkatuko dizuna. Kolagenoren baten edo Hylaformaren ezartzearekin arazoa konponduko ote den, edo glikolikoren peeling batekin nahikoa den aholkatuko dizu.

Izaten ditugun beste sintoma inestetiko batzuk, gure bularretan azaltzen dira, denboraren edo amatasunaren ondorioz. Erorketa eta koipearen galtzea gaur egun, bularretako protesiarekin eta zirugiazko teknikekin konpontzen dira. Drenatzeekin eta bularreko muskuluak indartzeko kabinan egiten diren ariketekin osatzen dira.

Zure gorputzean koipearen pilaketa agertzen hasten denean, pisu gehiegia, 'pistolerak', tripa, agerian gelditzen dira, estetikaren kontra. Dieta pertsonalizatuak, liposukzioa, lipektomia (triparen erabateko kentzea), dira koipea eliminatzeko teknikarik egokienak. Horrekin batera, era erregularran, baita linfatikoen drenatzea ere.

Azalaren zahartzearen lehengo seinaleak azaltzen direnean, zimurak, orbanak..., inestetikoak.



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 88 11 94

ORDIZIA

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATE-AK eta abar

✕ ESKAILERAK NEURRIIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1

Txarama Auzoa

20491 LEABURU

Tfnoa.: 67 36 11

Faxa: 67 36 55

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta


Mekanika eta

elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

☎ 88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN

2 gabiriar hilik


Otsailaren 22an, goizaldean, Gabiriako 23 urteko Iñaki Osinalde eta 16 urteko Etxahun Gorrotxategi auto istripuz hil ziren, Beasainen. Auto berean zihoazen beste 16 eta 17 urte bitarteko hiru gabiriar ere zaurituak izan ziren.

Atxiloketak

Urtarrilaren 31a gauean Idiazabalen izan ziren atxiloketen ondotik, beste hiru atxiloketa izan ziren otsailaren 10ean. Zerainen 19 urteko Iñaki Zabalo atxilotu zuten; Gaintzan 20 urteko Iñaki Garmendia; eta Araman, J.A., 17 urtekoa. Ertzaintzaren arabera, ustez kale istiluekin zerikusia dutelakoan atxilotu zituzten. Madrilen Entzutegi Nazionalaren aurrean deklaratu eta J.A. aramarra kartzelan sartzeko agindua eman zuen epaileak. Beste biei, 100.000 eta 200.000 pezeta-ko fidantza jarri eta libre geratu ziren.

Otsailaren 18an, berriz, M.L. 17 urteko zaldibitarra atxilotu zuen Ertzaintzak, autostop egiten ari zela. Hori ere kale istiluetan parte hartzea leporatzen die. Libre gelditu zen otsailaren 21ean.

Azken atxiloketak salatzeko, 'Euskal Gaztedia askatu' lemapean, manifestazioa egin zen otsailaren 15ean, Ordizian.



Lareoko turismo proiektuan kontsentsua nahi

Lareoko inguruan turismo-gunea eraikitzeko proiektuaren aurka dauden taldeek, (Ataungo Herri Ekimenak, Izadi Natur taldeak, EHNEk, Eguzkik, Neka-zalturismo elkarteak eta Gipuzkoako Mendi Federazioak) prentsaurrekoa eman zuten joan zen otsailaren 19an. Ataunen informazio gehiago zabaldu eta kontsentsu giro bat lortzeko eskatu zuten. Azaldu zuten, "ez alderdi sozio-ekonomikotik, ez ingurugiroari dagokionez, proiektua ez da egokia inguru horretarako".

Gaia aztertzeko hainbat mahainguru eta hitzaldi antolatu dira Ataunen, Herri Ekimenaren eskutik. "Proiektu suntsitzailea eta espekulatzailea dela azpimarratu dute Aranzadi Elkartekoek. Turistentzako erakargarritasun nagusia

paisaia izango litzateke, eta juxtu hori hondatuko dute", adierazi zuten.

Lareoko proiektua kritikatzen dutenek hala ere, garbi utzi nahi izan dute, ez dutela baztertzeko garapen proiektu hobe bat ez bul-tzatzea, eta turismo ardura-tsua erakarriko lukeen ideien alde daude. "Asmo turistiko hauek modu arrazional eta kalitatezko batean egingo balira, baietz esango genioke. Horretarako ordea, Ataunen ondo sustraitua eta errotua egon beharko du egitasmoak. Ataunen bertako baliabideek eta bertako bizitzak modu arrazional batean irautea nahi badugu, ekimen hauek bertako jendearengandik etorri beharko lirateke". Gauzak honela, Ataunen garatu daitezkeen hainbat proiektu aztertzen ari dira.

Mahai nazionalakide berriak

Herri Batasunaren Mahai Nazional berriaren osaketan 4 goierritar daude: Jon Gorrotxategi eta Eusebio Lasa beasaindarrak; Garikoitz Mujika lazkaotarra; eta Karmele Aierbe ataundarra.

Laukiak

Vicky Dominguez eta Joseba Maiztegi ordiziar senar-emazteek, laukiak espero dituzte. Ernalkuntza artifizialaren tratamenduarekin gelditu da haurdun Vicky. 35 urte ditu eta bost urteko semea dute lehendik. Familian bat-batean 4 lagun gehiago izateak dakartzan arazo ekonomikoei aurre egiteko, babesa eskatu die Ordiziako Udalari. Erabateko atsedena agindu diote medikuek Vickyri eta asaguru-etxe batean zuen lana utzi behar izan du, 2 urte barrurarte. Haurdunaldiaren 6. hilabetea dago Vicky.

Familia euskaldunak

HABEk antolatzen duen 'Egonaldiak Familia Euskaldunetan' izeneko plangintza garatzeko, familia euskaldunak behar dira euskara ikasten ari diren ikasleak hartzeko. Etxean ikaslearen bat hartu nahi duten familiek 4 kidekoak izan beharko dute, gutxienez, eta % 70tik gorako euskaldun-kopurua duten udalerrietan bizi.



88 55 00 ORDIZIA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

Zuberoako Maskarada ikusteko bidaia

Beasaingo Aurtzaka dantza taldeak Zuberoako Maskarada ikusteko bidaia antolatu du martxoaren 8rako. Larrañe herrira joango dira, Alzai eta Lakarriko biztanleek egindako Maskarada ikustera.

Goizeko 7.30etan aterako da autobusa, Beasaingo Pergolatako estatuatik. Bazkaria norberak eraman beharko du. Autobuserako txartelak Loinaz tabernan daude salgai, 1.500 pezetan. Maskarada zuzenean ikustez gain, Zuberoa zertxobait gehiago ezagutzea ere badu helburu bidaia honek, Aurtzaka dantza taldekoek adierazi digutenez.

Egonaldiak uztaila eta iraila bitartean egingo dira eta familia bakoitzak gehieze ere ikasle bat hartu ahal izango du egonaldi bakoitzeko. Familiak hilean, ordainetan, 75.000 pezeta jasoko ditu etxean hartzen duen ikaslearengatik.

Martxoaren 20 aurretik egin beharko dira eskaerak HABEko bulego nagusian (Vitoria-Gasteiz kalea, 3 Donostia). Informazio gehiago udaletxeetan edo 41 26 21 telefonoan duzue.

Goierriren etorkizuna aztergai

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak hitzaldi-mahaingurua antolatu du martxoaren 4rako. Euskal Herrirako eta Goierriarako

zer nolako etorkizun (soziala, kulturala, ekonomikoa) nahi dugu? galderari erantzuten saiatuko dira. Goieki, Goierriko garapen agentziaren lana ere aztertuko dute. Guzti honekin batera, Ipar Euskal Herriko esperientzia jasoko dute, Gazteriak taldearen eskutik. Nekatzaritza eta abeltzantza defenditzeko, terziazarizio eta turistifikazioari aurre egiteko, eta euskal kultura indartzeko zer egiten ari diren azalduko dute.

Ordiziako Gaztetxean izango da solasaldia, arratsaldeko 7.30etan.

Arriarana bidea

Beasaindik Arriaranerainoko bidea zabaldu dute, oinezkoentzat. Gudugarreta auzotik eta Itola baserriaren



Eskuminak Hong Kong-ndik

CAFetik Hong Kongera, Chep Lap Kokeko aireportu berria eta hiriburua lotzen dituen trenbide berria egitera joan direnak Goierri eta goierritarrez asko gogoratzen direla dirudi. Hala dio GOIERRITARRA aldizkari bidali duten postalak. Hong Kongndik eskuminak bidaltzen dizkie goierritar guztiei argazkikoek. Zutik daudenak: Jon Ander Garaialde, Antxon Giralt, Juanito Alderete, Iñaki Agirre eta Joseba Tolosa. Makurtuta: Bittor Arroniz, Alberto Olivan eta Fran Martinez. Mezu mehatxatzaile honekin bukatu dute postala: "kontuz itzultzen garenean. Batez ere sagardotegi eta emakumeak".

aurretik, Arriaraneraino, Eun Estanterien ondoraino iristen da bidea. Helburua dena den, urtegiraino irikitzea da.

Kirolari elbarrituak

Mikel Garmendia ordiziarra, Jabier Imaz beasainarra eta Ekain Arruabarrena

lazkaotarra bikain ibili dira elbarrietako Espainiako eski txapelketan. Bakoitzak bere kategorian ondorengo lorpenak izan dituzte: Garmendiak 2 urrezko domina eta 2 brontzezko lortu ditu, Imazek 2 zilarrezko eta brontzezko bat, eta Ekainek 4. eta 5. postuak.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

**Helduen, umeen, bikoteen eta
sexologi tratamenduak**

**AURRE ZITA
☎ 88 72 21**

Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN

AMEBI



Sagardotegia

**URTE OSOAN
ZABALIK**

Astegunetan
afariak
Astebukeretan
bazkari eta
afariak

☎ 16 25 23
LAZKAO

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 **BEASAIN**



Xikel

NEVES
BANATZAILEA

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

Urdaneta, 41

☎ 161606

ORDIZIA

EUSKAL ABIZENAK ~~EUSKAL~~ GRAFIAZ



Zure abizenak euskaraz idazten dituzula,
baina karnetea erdal grafiaz agertzen direla?

Arazo hau behin betirako konpontzeko aukera duzu orain.
Hemendik aurrera agiri guztietan zure abizenak legalki euskal grafiaz
idatzi ahal izango dituzu.

**HURBIL ZAITEZ, OTSAILAREN 23tik MARTXOAREN 17ra
HONAKO LEKU HAUETARA ETA GUK EGINGO
DIZKIZUGU BEHAR DIREN TRAMITE GUZTIAK.**

ORDIZIAN

Barrena Kultur Etxean
Astearte eta Ostegunetan
Arratsaldeko 6etatik 8etara

LAZKAON

Goiherriko Euskal Eskolan
edo
Gerriko Liburudendan

GOIZTIRI  **EUSKALTEGIA**

 **HITZARO**
EUSKARA ELKARTEA

GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLA
Kultur Elkartea



INFORMAZIO GEHIAGO 16 23 66 - 16 02 82 TELEFONOETAN.

ETXERAKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ARAUDI BERRIA BEASAINEN:

Prezioa merketuta, etxez etxeko laguntza beasaindar gehiagorengana iristen helburu

Beasaingo Udaleko Ongizate Sailak Etxerako Laguntza Zerbitzuaren araudi berria jarri zuen indarrean otsailaren 7an. Autonomia falta duten beasaindarrei zuzendua dago zerbitzua, eguneroko bizitzako eginkizunak egiten laguntzeko. Araudi zaharrarekin alderatuz, aldaketarik handiena prezioan dago, orduko 850 pezetako prezio publikoa jarri baita. Kanpaina berezia jarri du martxan Beasaingo Udalak, zerbitzu hau herritar gehiagorengana iritsi dadin.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua herritar guztienengana zabaldu nahi du Beasaingo Udaleko Ongizate Sailak. Autonomia falta duten pertsona guztiei dago zuzendua zerbitzua, eta ez askok uste duten bezala, hirugarren adinekoei bakarrik. Jende gehiagorengana iristea denez helburu nagusia, otsailaren 7an indarrean jarri zen araudiaren arabera, orain arteko prezioa ia erdira jaitsi da. Hau da, orain artean, ordua 1.500 pezeta inguru kostatu bada, hemendik aurrera, zehaztu den prezio publikoa (850 pezeta ordua) kostatuko da.

"Prezio honen jaitsiera-



Autonomia falta duten beasaindarrei zuzendua dago etxez etxeko zerbitzua, eguneroko bizitzako eginkizunak egiten laguntzeko.

rekin Udala gehiago inplikatu da eta jende gehiagorengana iritsiko da prezio murriztago honekin. Prezioa ez dadila oztopoa izan zerbitzua behar dutenentzat", dio Karmele Elola, Ongizate Saileko Gizarte Laguntzaileak. Etxerako Laguntzak eskaintzen dituen zerbitzuak hauek dira: jaiki eta oheratu; garbitu eta bainatu; jantzi eta erantzi; otorduak prestatu eta jana eman; etxeko lanak egin; erosketak egin; jantziak garbitu eta lisatu; pentsioa kobratu; mediku-errezetak jaso eta kudeaketetan laguntza. Konpainia eta paseo zerbitzua, Gurutze Gorriko boluntarioen esku dago.

Beharraren arabera

Astelehenetik ostiralera, 3 ordu, eskaintzen ditu Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuak, beharraren arabera. "Etxera joan, balorazioa egin, zenbat ordu eta zein ekintza zehatzetarako behar den laguntza aztertzen du-

gu", dio Karmele Elolak.

Zehaztutako prezio publikoa, ordaintzerik ez duenarentzat baremo bat jarriko da. Horretarako egoera ekonomikoaren berri eman behar dio Ongizate Sailari. Prezio publikoa oraindatzen badu ordea, ez du bere egoera ekonomikoaren berri agiriaren bidez eman behar.

Laguntza pertsonala eta orokorra

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua pertsonala izan daiteke, edo orokorra. Gauzak honela, zerbitzu pertsonalak jasoz gero, pertsona ezindu horren egoera ekonomikoa bakarrik hartuko da kontuan. Zerbitzu orokorren, kasuan, etxebizitza horretan bizi direnena, onuradunak guztiak izango baitira.

Beasaingo Udalak Donostiako enpresa bat du azpikontratuta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua eskaintzeko. 9 langile beasainda-

rrek erantzuten diete momentuan dauden 30 eskaerei. "Langileak kualifikatuak dira, urte asko daromazkite zerbitzu hau ematen, erabat konfiantzazkoak dira".

Beasaingo Udaleko Ongizate Saila Etxerako Laguntza Zerbitzua herritar gehiagok erabil dezaten kanpaina berezia egiten ari da. Orain arteko kopurua bikoiztea espero dute Ongizate Sailekoek. Horrekin batera, eskaera guztiei behar bezala erantzuteko, lanpostu berriak sortzea ere espero dute. Bide batez, ezkutuko ekonomia deritzona gutxitu nahi dute. "Jende asko dago horrelako lanak egiten dituen bere kontu, inongo segururik gabe, eta arriskuan. Lan-baldintzak hobetu nahi dira".

Zerbitzu honetaz baliatu nahi dutenek, Ongizate Sailera deitu behar dute (805238). Informazio orokorra telefonoz emango zaie. Gehiago sakondu behar izanez gero, aurrez ordua eskatu, eta Ongizate Saileko bulegora joan.

Aintzindaria

Zerbitzu sozial honen araudi berria aintzindaria da Goierriin. "Horrelako prezio publikoa jarri duen lehenengo aldia da Beasain. Inguruko herriak zain daude, zein emaitza dituen ikusteko. Eta gu ere horrela gaude". Karmele Elolak gaineratu digunez, beste Gipuzkoako herriei alderatuz, beasaindar gutxik erabiltzen du zerbitzu hau.

ZEGAMA



Jai giroa goizetik nabaritu bazen ere herrian, arratsalde partean izan zen festa giro beroena. Arratsaldeko 3.00etan Aitxuri herri-eskolako mozorrotutako haurren desfilea ikusi ahal izan zen eta baita irakasleena ere. Desfilearen lagungarri Arakama anaiak trikitalariak

izan ziren. Ondoren Guraso Elkarteak eskainitako txokolata jatea, Tobera Musika Eskolan eskainitako jaialdia Kiroldegian eta Kultur Etxeak herriko gazteen laguntzari esker antolatutako, buruhandiak ibili ziren herrian zehar. Horrezaz gainera, herriko txistularien kale-

lhauteri jai eleganteak

jira, eta gaueko 9.00etan afaria eta ondoren dantza lehiaketa Kiroldegian.

Dantza lehiaketan garaile Eneko Arratibel eta Xabier Azurmendi izan ziren, urdaiazpiko bat jaso zuten sarritzat. 2. tokian Amaia Urbizu eta Ainara Irigoras izan ziren eta gazta eder bat jaso zuten. Kiroldegian afaltzen 110 lagun elkartu ziren.

Trialsina

Ruben Zabaletak Gipuzkoako txapelketan daraman martxa ez da nolanahikoa. Orain arte jokatu diren lau lasterketetan bera izan da irabazle. Jarrai dezala bide horretatik.



Ruben Zabaleta.

Krosa

Martxoaren 1ean Lazkaon jokatu den Gipuzkoako txapelketan Aitxuriko talde- txo bat bertan izango da.

Eduarne Albizu

ZERAIN



Aterpetxean ekintza ugari izango ditugu gaur hasi eta martxoaren 8ra bitartean.

Asteburuan zehar, Arbaso elkarteak osatzen duten artisauek kongresua izango du-

Aterpetxean ekintza ugari

te. Hainbat gai landuko dituzte, tartean 'Artisautza tradizionala pausoz pauso 2000. urteruntz'. Artisau produktuak bultzatzeko denda berri baten irekitzea ere aztertuko dute.

Erakusketa

Martxoaren 2an Zerain Dezagun Fundazioaren aterpetxean erakusketa bat inauguratuko da. Pilotalekuetako kirolak, artisau ogibideen ikuspegitik (pilota, xare eta xistera) erakusketa izango da. Goizetan 11:00etatik 13:30etara egongo da zaba-

lik, eta arratsaldetan, 15:00etatik 18:00etara. Larunbat eta igandeetan arratsaldeko ordutegia aldatuko egingo da: 16:00etatik 19:00etara.

Tailerrak haurrentzat

Martxoaren 5ean, goiz guztian zehar, haurrentzako tailerrak izango dira. Batetik buztzingintza ikastaroa eta bestetik, pilota tailerra. Xixterak nola egiten diren ere erakutsiko zaie.

CGZ

GOIERRI

Ikerketaren Zentrua

Gida-agiri eta arma baimenetarako ikerketak

Asteleheneetik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.

Larunbatetan: 9:30etatik 11:00etara.

Garagarza Pl. 10 ☎ 888734 ORDIZIA



X

ENKEGI

ETXE-AROZKINTZA

Diseinuak neurritan

Larunbat arratsaldez irekita

Erakusketako ☎ eta faxa: 889113 - ☎ mugikorra: 908 863591

Senpere Merkatalgunea, 38

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak**

BEASAIN

ORDIZIA

Emakumearen inguruko ekintza ugari

Martxoaren 8a, Nazioarteko Emakumearen eguna, inguruan ekintza ugari antolatu dituzte Udaleko Zerbitzu Sozialak eta Kimetz emakumeen elkarteak. Martxoaren 2tik 3rako ekintzak, Zaharren Egoitzan izango dira. Ekitaldi guzti hauek irekiak dira. Astelehenean, arratsaldeko 6.00etan, 'Emakume helduek garatu duten paper garrantzitsua eta etorkizuneko perspektibak' gaia jorratuko du Tomasa Zabaleta, Bergarako Zaharren Egoitzako Lehendakariak. Asteartean Donostiako Perlako termak bisitatuko dituzte, 4.00etan abiatuta. Eta ostegunean, oraindik zehaztu gabe dagoen filme bat ikusteko aukera, arratsaldeko 6.00etan.

Gainerako ekitaldiak Barrenan izango dira. Martxoaren 9an, 19:00etan, Oihulari Clown antzerki taldeak, 'La Espera' umorezko lana aurkeztuko du. Martxoaren 11n, mahaingurua izango da, 'Emakumeen egoera eta publiko mailako partehartzea' gaiari buruz. Aldi berean, '2000. urteari begira beharrezkoak al dira emakumeen elkarteak?' galderari erantzuten ere saiaturiko dira.

Martxoaren 13an, 18:00etan, 'Nortasun pertsonalaren eraikuntza' gaiari buruz hitz egingo du Begoña Salas. Nazioarteko pedegogi kontseilaria eta bateko hezikuntzan aditua da Salas.

Martxoak 8

Martxoaren 8rako ekintza berezia antolatu dute. Europako Parlamentutik datoreen ekimen bati erantzunez, Afganistango emakumeen eskubideen bortxaketa nabarmena salatu eta elkarta-



Joan zen asteen, 16tik 20ra, aste kulturala ospatu zuten Urdaneta-Oianguren ikastetxe publikoan. Ekintza ugari izan zituzten: magia, hitzaldiak, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, Andoni Imaz Errealeko jokariaren eta Marron mendizalearen bisita, herri-kirolak, maratoia, moda desfilea...

suna adierazteko kontzentrazioa egingo da, 'Kabulgo emakumeentzat lora bat' lemapean. Talibane Afganistanen hirutik bira kontrolatzen dute ia. 1996an hiriburu konkistatu zutenetik, emakumeei erregimen zorrotza ezarri zien. Lan egitea eta ikastetxeetara joatea debekatzen die emakumei, eta beharrezkoa dute publikoan oinetik bururaino estalita joatea. Ezin dute bakkalera kalera atera, ez eta publikoan hitz egin ere. Udaleko Gobernu batzordeak ere bat egingo du ekimen honekin. Bilkura Plaza Nagusian izango da, eguerdiko 12.00etan.

Mendi-astea

Martxoak 2: Ordiziako mendizaleak (I) ikusentzunezkoa, 20:00etan, Barrenan. **Martxoak 3:** Ordiziako mendizaleak (II) ikusentzunezkoa, 20:00etan, Barrenan. **Martxoak 4:** Migel Angel Otxoa eta Batis Goikoetxearen 'Hiru handietako eski-zeharkaldia' ikusentzunezkoa, 20:00etan, Barrenan. **Martxoak 5:** Koke Lasaren 'Manaslu (8.163

m.): Izpirituaren bizilekua' ikusentzunezkoa, 20:00etan, Barrenan.

lhauterietako I. lehiaketa

Ordiziako tabernariez osatutako Elkarrekin bultzatuta lhauterietako lehen lehiaketa burutu zen joandako larunbatean. Mozorroretzeko ohitura berreskuratzeko asmoz egindako ekimena da hau eta tabernarien iritziz arrakastatsua izan zen lehen saio hau. Sariak ere ez ziren nolanahikoak, izan ere taldeko mozorroren artean irabazle izan ziren Bustuntzako tirolarrekin 100.000 pezetatik poltsikoratu zituzten. Bigarren jazzlari beltzarenak geratu ziren (40.000 pezetatik) eta hirugarren Boney M. Viudas (20.000 pezetatik). Banakakoetan Ana Usabiagak eraman zituen 30.000 pezetatik bere sorgin mozorroarekin. Anjeltxo Lasa arratoitzarra izan zen bigarrena.

Museko emaitzak

Argi Berri Elkarteko mus txapelketa azkarrak irabazle naparrak izan zituen. Intza

eta Lezaetako Patxi Otegi eta Eugenio Estangak osatutako bikotea gailendu zen Beasaingo Castor Cabido eta Eduardo Martinezek osatutakoaren aurrean. Finala, parekatu-parekatua, 3-2ko emaitzaren ondorioz lortu baitzituzten naparrek txapelak eta 150.000 pezetak. 90 bikotek hartu zuten parte eta esan oraindik arkume bat jaberik gabe dagoela (1.360 zenbakidunarentzat da).

Ikasteknikak ikastaroa

Gaztekutxak Hitzaro euskara elkarrekin laguntzaz ikasteknikak ikastaroa antolatu du martxorako Ordizian. 15 orduko iraupena izango duen ikastaroa izango da, aipatu hileko larunbat goizetan. Izena emateko 16 urte beteak izan beharko dira eta 4.000 pezetatik ordaindu beharko dira. Informazio gehiagorako deitu 16 23 66 telefono zenbakira.

Finalerdiak jokoen

Majoriko areto-futbola txapelketa pil-pilean dago. Final laurdenak jokatu ondoren lau talde besterik ez dira geratzen txapela lortzeko aukerekin. Laiterrek 5-3 galdutako Orbelaren aurka, Tximistak 5-2 irabazitako Matxaini, Juantxok penaltiei esker lortu zuen hurrengo faserako sartzeko Bago kanpoan utziz eta azkenik Albokak 5-0 irabazitako Pio Biri. Asteburu honetan, beraz, finalerdiak jokatuko dira. Tolosako Orbelaren aurka, Tximistaren aurka, Aitor Calvillo

OLABERRIA

Bigarren Kultur Astea abian



Bikario-etxearen aretoa igandean inauguratu da.

izenko tarte-arekin. Osasunari buruzko hitzaldia gaueko 9.00etan izango da Bikario-etxearen aretoan.

Martxoaren 3an, Javier

Fernandez herritar argazkilaria 'Artzantza Olaberri' izeneko diapositiba emanaldia eskainiko du Kultur Etxean, gaueko 9.30etan.

Asteazken arratsaldean, herriko haurren irakurketa suspertzeko asmotan kontu-kontalari bat izango da. Ekitaldi hau 4 eta 10 urte bitarteko haurrentzat dago zuzendua eta Liburutegian izango da. Bestalde gaueko 8.30etan Fernando Rodriguez notarioaren bidez, 'Testamentua'ren nondik norakoak jakiteko aukera izango dugu Bikario-etxearen aretoan.

Martxoaren 5ean ere bi hitzaldi izango dira. Arratsaldeko 3:00etan, Amaia

Vazquez psikologoaren bidez, Haur Hezkuntza gaia jorratuko da. Hitzaldi hau Emakumezko Baserriaren elkarrekin antolatua da eta Bikario-etxearen aretoan izango da. Gaueko 9.00etan aldiz, Julian Bereziartua medikuak 'Elikagaiak eta Osasuna'ri buruz hitz egingo du, Bikario-etxearen aretoan.

Martxoaren 6an, arratsaldeko 5.30etan, Bikario-etxe aurreko lursailetan zuhaitzen landatzea egingo da. Ondoren 7.30etan, Koke Lasa Ormaiztegi mendi-zaleak, 'Manaslu: Izpiritua-ren bizilekua' gaiari buruzko diapositibak eskainiko ditu Kultur Etxean. Bestalde, 9.00etan, Lurgintzako teknikariak 'Gaur egungo baserrien egoera eta Europako ikuspegiak' gaiak jorratuko dituzte, Bikario-etxearen aretoan.

Martxoaren 7an, goizean eta arratsaldean, XI. Joxe Kerejeta bola txapelketa jokatu da herriko bolatokiaren. Arratsaldeko 5.00etan, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak izango

Inausketa ikastaroa

Udalak zuhaitzen inausketa ekitaldi praktikoa antolatu du datorren martxoaren 14rako. Ikastaro hau Gatikako mintegi batean egingo da. Irteera ordua 8.30etan izango da Kasko auzotik aterako da autobusa. Ondoren hiru orduko ikastaroa izango da eta eguerdiko 2.00etan bazkaria Ereka-Gatika jatetxean. Arratsalde partean Butroeko gaztelua ikusteko aukera izango da eta arratsaldeko 7.00etan autobusa Olaberriantza irteerako da. Izen ematea martxoaren 3an amaituko da.

dira pilotalekuan eta ondoren txokolate jana. Gau partean zikiro jana izango da, Irazu, Peñagarikano eta Sorozabal bertsoari ekin.

Azkenik, igandean, Hiru mugata mendira joateko aukera izango da. Irteera herriko plazatik egingo da goizeko 9.30etan. Eta goizeko 10.00etan hasita, Euskal produktu eta artisautza-aren azoka izango da pilotalekuan.

Nagore Goiburu

ZUGEN SEME-ALABENTZAT DOHTINIK

SAN PRUDENTZIO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

L A Z K A O



Euskal Eskola Publikoa

**Informazio
gehiago:
88 26 30**



- Haur hezkuntza
- Lehen hezkuntza

Matrikulazioa: otsailaren 26tik martxoaren 11ra.

Bilera bideo emanaldiarekin martxoaren 3an, arratsaldeko 6.00etan

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA PUBLIKOA

LAZKAO
Gipuzkoako Eskolarteko Kros Txapelketa

Aurtengoan Lazkaon burutuko da, Gipuzkoako Eskolarteko Kros Txapelketa bere maila guztietan. Txapelketa hau, hain zuzen, igande honetan, martxoaren lehen burutuko da.

Gipuzkoa osoko korrikariak parte hartuko dute bertan, alebin mailatik hasi eta kadete mailararte, bai neskak eta bai mutilak. Txapelketa honetarako zirkuito desberdinak prestatu dira parte hartzaileen adinari hobeto egokitzeko. Esan behar da halere, zirkuito guztiak plazako futbol-zelaitik abiatuko direla eta helmuga ere bertan izango dutela. Gainerantzean korrikariak, Arizti-Haundi futbol-zelaira bidean dagoen parkean egin beharko dituzte kilometro gehienak.

Txapelketa goizeko 10.30 etan hasiko da alebin nesken lasterketarekin, hauek 1.320 metroko ibilbidea egin beharko dute. Ondoren alebin mutilak izango dute beraien lasterketa, 2.750 metrokoa hain zuzen. Jarraian infantil nesken txanda izango da eta ondoren mutilena, hauen lasterketak 2.270 eta 3.850 metrotakoak izango dira hain zuzen. Azkenik, kadete nesken lasterketa 11.55etan izango da, eta burutu beharreko lana, berriz, 2.420 metrotakoa eta mutilen lasterketa 12.15tan hasita 5.570 metrokoa izango da.

Txapelketa hau Txindoki Atletismo Taldeak antolatu du, baina beste hainbat laguntza ere jaso dute, hala nola, Gipuzkoako Foru Aldundi eta Atletismo Federakuntzarena, Lazkaoko Udal eta Txuri Urdin Elkartearena, Lazkaoko bi ikastetxeena eta herriko beste hainbat komertzioena ere bai.

'Lazkaoko Ekimena'-ren deia

Lazkaon sortu zen talde honek Euskal preso guztien eskubideak errespetatzeko eskaria egitea eta horretarako baliabideak jartzea ditu helburu. Horretarako ekin-tza batzuk burutu ditu jadanik eta beste batzuk egiteko asmotan dabil. Apirilaren 18an herri kirol saio bat antolatu nahi dute arratsaldean eta apirilaren 24ean berriz, bertso saio bat. Ekitaldi hauen antolakuntzan zuen laguntza benetan eskertuko lukete.

Ekain Arruabarrena

Lazkaoko kirolari bikain hau Munduko Txapelketan parte hartzeko hautatua izan da duela gutxi. Lehenik Espainiako Txapelketan parte hartu beharko du Ekainek eta ondoren berriz Koloradon egingo diren mundialetan, baina hau guztia ekainean eta irailean izango denez, gu zai egongo gara bitartean.


Martxan da babes ofizialeko etxebizitzaren adjudikazio prozesua

Babes ofizialeko 24 etxebizitza egiten ari dira. Hauen jabe zein izango diren jakiteko prozesua martxan da jadanik. Lehenik, Eusko Jaurlaritzak eta Lazkaoko Udalak bilera bat egingo dute etxebizitza hauek eskuratu nahi dituzten guztiekin. Bilera honetan argituko dira gai honi buruz dauden kezka guztiak.

Etxebizitza hauen jabe egiteko eskaria, lanbidearteko gutxiengo soldata 2,5 aldiz baino gutxiago irabazten dutenek egin ahal izango dute. Eskaria bete duten guztien artean, zozketa publikoa egingo da Lazkaoko Udaletxean, bizi-leku hauek nori dagozkion jakiteko. Zozketa horretan etxeen jabe egiten direnek jakin beharko dute, jabetza hori 75 urterako izango dela gehienez eta ordainketa berriz 20 urteren buruan egin ahal izango dutela %4ko interesarekin.

Izena emateko epea, informazio hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hilabete artekoa izango da eta Gipuzkoako Lurralde Antolamendu Etxebizitza eta Ingurugiro Sailean egin ahal izango da izenemate hori.

Matrikulazioa San Prudentzio ikastetxean

San Prudentzio ikastetxe publikotik jakitera eman ditugenez, matrikulazio epea zabalik dago martxoaren

11a arte. Martxoaren 3an, bideo-emanaldia izango da gurasoentzat, informazio gisa, arratsaldeko 6.00etan.

*Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu*

TATUAJEAK
TRIBIALAK, LORAK, TXIMELETAK...
Zuk nahi duzun marrazkia

SIBONEY

Deitu ordua eskatzeko 88 15 50ra
MERKE



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33
BEASAIN

LEGORRETA

Elkarteetako junta berrien aukeraketak

● Jubilatuen elkarteak:

Herriko jubilatuek zozketa bidez aukeratu berri duten zuzendaritza junta honakoa da: Lehendakaria, Jesus Iturrioz; Idazkaria, Juan Labaien; Diruzaina, Manuel Uranga; Bokalak, Sotero Calleja, Santos Esnaola, Patxi Esnaola, Juanito Etxeberria, Julita Ezeiza, Filomena Amondarain eta Milagros Izagirre.

● Jota-Kea elkarteak:

Otsailaren 1ean burutu zen Jota-Kea elkarteak bazkideen batzar orokorrean honako zuzendaritza junta aukeratu zen: Lehendakaria, Juan Antonio Garin; Lehendakariordea, Joxe Migel Garmendia; Diruzaina, Patxi Latienda; Idazkaria, Pedro Joxe Iturrioz; Bokalak, Oscar Ramiro, Iñigo Zun-



Legorreta Tropikala

Itxura ederra eman diote haur parkeari Udalak aldatu berria dituen palmerek. Kasualidadea izango da baina landare tropikal hauek landatzearekin batera eguraldi ona etorri zaigu gainera. Tropikalizatzen ari ote zaigu herria?

zunegi, Mikel Iparragirre, Martin Garmendia, Joxean Irastorza eta Aitor Alustiza.

Batzar orokorra baino egun bat lehenago txapelketa desberdinak jokatu ziren. Musean Luis Espinosa eta Migel Latienda izan ziren

txapeldunak. Tokan berriz, Oscar Ramiro nagusitu zen.

● Bilkoin elkarteak:

Urtarrilaren 17an ospatu zen Bilkoin elkarteak bere eguna. Eguna behar bezala ospatzeko, bazkari eder batekin batera, mus eta toka

txapelketa antolatu zituzten.

Toka txapelketako sailkapena: Martin Garmendia, Joxe Manuel Larrea eta Fernando Garcia.

Mus txapelketako sailkapena: Niko-Moron, Nandi-Santi eta Valles-Joxe Mari.

Gazte aretoa

Gazteentzako areto bat sortzeko asmoa dagoela eta, otsailaren 3an bilera egin zen Udaletxean.

Pelotalekuaren pintaketa

Premi ederra bazeukala txukuntzen eta azkenik eman diote pintura pasadatxo gure pelotalekuari. Orain badaukagu pelotaleku zuri eder askoa. Ea honela luza-ro irauten duen.

Josune Amondarain

ITSASONDO

Otsailaren 9an, gaueko 12.00etan, konturatu zen San Sebastian sendiko semea etxeko ganbaran sua zegoela. "Orduerdi lehenago ohera joan banintz, konturatu ere ez ginen egingo", argituko digu. Hots arraroak entzun zituen lehenengo. Egurra sutan dagoenean izaten den hotsa geroago. Ganbarako leiho batetik sua ateratzen zela ikusi zuen. Sukaldeko sapaia erori zen ondoren. Etxekoak eta bizi-

lagunak esnatu, eta ahal zuten ateratzen saiatu ziren.

60 bat urte ditu Intxaurrondo etxeak eta zurezkoa da. Sua berehala zabaldu zen. Azkeneko pisuko bi etxebizitzek izan zituzten kalterik handienak, baina bestee ere izan zuten kalterik. Esaterako, sutan zegoen habe edo biga bat bigarren pisura erori zen. Sua itzaltzeko erabilitako urak ere kalteak eragin zituen. Baita keak berak ere.

Sua zergatik eta nondik piztu zen ez dakite, baina kebidetik piztu zela uste du San Sebastianek. Kalteak aseguru-etxeekin ari dira hizketan. Birtartean sendiar-tekoen etxean daude hirugarren pisuko bizilagunak.



San Sebastian sendiaren sukalde modu honetan geratu zen.

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA

EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

Inprimategia
EGUZKI

Nafarroa Etorbidea, 9

☎ 88 94 82

BEASAIN

BEASAIN

S.D. Beasain, bikain

Denboraldi harrigarria burutzen ari da herriko futbol talde nagusia. Denboraldi hasieran plantila gazte eta etxe ingurukoa osatu zuten, helburu xumeekin abiatu ziren, eta emaitzak ezin hobeak dira. Izan ere, pasa den igandean Bilbao Athletic 3-0 garaitu ondoren, 5. dira sailkapenean, 46 puntu batuz. Eta ondorioz, 2. mailarako igoera ligaska jokatu duten lau lehen postuetatik puntu bakarrera dira.

Jokatutako 26 partiduetatik 13 irabazi dituzte, 7 berdindu eta 6 besterik ez galdu. 18 gol baino ez dituzte jaso (3.ak dira alor horretan) eta 29 egin dituzte; momentuz Egoitz Sukia (8) eta Iker Remirez (6) dira golegile nagusiak. Baina izenetan erreparatu gabe, talde guztiaren maila handia goraipatu behar da. Eta nola ez, Manuel Diez 'Nabarro' ren agindupean Beasainek darman ibilbidea. Iazko denboraldi erdian eta egoera zailean hartu zuen taldea Nabarrok, eta geroztik gorakada geldiezinean dira beasaindarrak.

- Zer nolako balorazioa egiten du Manuel Diez 'Nabarro' k denboraldiaz?

- Oso positiboa. Hasieran ez geneukan oso argi nola ibil zitekeen taldea, plantilan eraldaketa sakona egin baitzen. Baina oso ondo ari gara, taldea gero eta segurtasun gehiago hartzen ari da eta orain hor gaude, denerako aukerakin.

- Denboraldi hasierako helburua mailari eustea zen. Hori ia loturik dagoela, igoera play-offa al da helburua?

- Egia esanda gauden pos-



Renferekin 2. hitzarmena sinatu zuen Udalak otsailaren 24an. Renfek 6.000 m²-tik gora saldu dizkio Udalari, oinezkoentzako erabilpena izango duen gune publiko irekia sortzeko beharrezkoak diren lursailak, alegia. Hurrengo alean izango duzue informazio gehiago.

tuan egonda, play-offari ez begiratzea ia ezinezkoa da. Baina gure benetako helburua 2.B mailan jarraitzea da. Hortik aurrerako guztia arrakasta litzateke, eta play-offerako sailkatzea izugarria. Baina horretarako partiduz partidu joan behar gara, hori da biderik egokiena.

- S.D. Beasainek filosofia aldaketa sakona egin zuen denboraldi hasieran, herriko eta eskualdeko jokalariek gazteak hartuz, eta emaitza onak ematen ari da.

- 8 baja eman genituen denboraldi haieran, gainera ho-

rietako 6 titullarrak ziren. Eta taldera iritsitako 12 jokalar berriak beheko mailetatik etorri dira. Plantila gaztea osatu da, eta guztiek egindako lan izugarriagatik ematen ari da fruitu ona. Ia jokalariek guztiek izan dute bere aukera eta oso maila onean aritu dira, gogo handiz; lan horren ispilu da 5. postua.

- Hau izan liteke etorkizunerako bidea?

- Beno, gauzak urte batetik bestera asko alda daitezke. Gerta liteke datorren urtea ez hain ona izatea, edota maila hau emango duten jokalariek gehiago ez aurkitzea

Emakumezkoen astea

Asmubek antolatutako, gaurtik hasita eta martxoaren 8ra arte (Nazioarteko Emakumeen eguna) ekitaldi ugari prestatu dira. Gaur arratsaldean pintura, eskulan eta ortografia tailerretako lan erakusketa irekiko da Usurbeko Erakusketa Aretoan. Astelehenean, Segura eta Zeraina irtenaldia izango da (izen emateak Asmuben). Asteartean, martxoak 3, Asmubek Interneten orria irekiko du: www.goierrri.com/asmube. Bestalde, asteazkenean, Oihulari Klown taldearen debaldeko antzezpena izango da Usurbe Antzokian, 17:00etan. Ostegunean, ordu berean, Udaleko Batzar Aretoan kontzertu gidatua izango da Musika Eskolaren laguntzaz. Eta azkenik, ostiralean, afaria izango da Lierniko Mujika jatetxean (izen ematea Asmuben: Kale Nagusia, 40).

eskualdean. Baina nire ustez saiatu egin behar gara, jokalariek jarraipena eginez eta beste taldeen kolaborazioa bilduz. Hauek euren jokalarientzat irteera onena bilatzen saiatu behar lukete, eta hori 2.B mailan S.D. Beasainen jokatzea da. Gure zuzendaritza saiatzen ari da erlazioak estutzen. Lazkaorekin harreman ona lortu da eta beste taldeekin ere lortu beharra dago.

- Bestalde, mailako aurrekonturik txikienetakoa duzue. Eta parean aurrekontu izugarrietako (200-300 milioi) talde asko eta talde filial ugari dituzue...

- Hala da, eta ez dakit zale-tuek behar adina baloratzen duten hori. Beasainek aurren ere jokabidea aldatu du, oso talde merkea osatuz. Gure parean talde profesionalak topatzen ditugu ia igandero, eta horietako askoren aurretik gaude sailkapenean. Horrek meritu handia du.

- Agian penarik handiena horretxek ematen dizue, Loinazen ikusle gutxi biltzeak.

- Bai. Horretan telebistak hainbeste futbol eskaintzeak eragin handia du; baina horretaz aparte, jendea zelaira eraman behar luketenek ez dakit behar adina egiten duten. Dena den, Beasain eta inguruko zale-tuek oso gustora egon behar lukete taldearen lanarekin, gainera bertako jokalariek izanda. Azken urteetan kanpoko jokalariek izatearen aitzakia jartzen zen, baina orain ez dago horrelakorik; gehienetan, 4 edo 5 beasaindar baitaude hamaikakoan.

Aitor Arrue

IDIAZABAL

Badajozera bidaltzeko izara bilketa

Kinbela astialdiko taldeak Badajozera bildatzeko izara bilketa antolatu du asteburu honetarako. Bilketa larunbatean (otsailaren 28a) egingo da Apaiz etxean ondoko ordutegian: Goizean 10.00etatik 13.00etara eta arratsaldean 16.00etatik 19.00etara.

Badajozen duela hilabete batzuk izandako uholdeetan kaltetutakoei lagundu nahi diete ekimen honen bidez Kinbela taldeekoei. Izara bilketa Sor Teresarekin elkarlanean antolatu dute. Herriko komentuko moja hau Badajozen dago orain. Ez beharra gertatu zenean Kinbela taldekoak berarekin harremanetan jarri eta laguntzeko prest zeudela jakinarazi zioten. Eskaintza horri erantzunez Sor Teresak herrian izarak biltzeko eskatu die.

Kinbela taldekoek egingo dako deialdian izarak baka-

rrik bilduko direla azpimarratu dute, bestelako laguntza motarik ez eramateko ere eskatu dute.

N.A.N.-a berritzeko aukera

Ekaina baino lehen nortasun agiria berritu behar duten herritarrek, Ordizian egin dezakete lan hori. Herritar askok karneta hilabete hauek berritu beharra dutela ikusita, Udalak herritar horiei lana erreztu nahi die. Donostiara joan gabe ekaina baino lehen (hilabete hori barne) karneta Ordizian berritu nahi duenak ondoko urratsak jarraitu beharko dituzte: Berritzeko inpresoa estankotan erosi eta karnet zaharren fotokopia batekin Udaletxera eraman behar dute martxoaren 13a baino lehen. Udalak jakinarazi du apirila edo maiatza aldera egingo direla karnet berriak.

Karneta galduta duenak edo berritzeko paperak Donostiara bidalita dituenak bertara jo beharko du N.A.N. berria lortzeko.

Liburutegiko arduraduna

Udalak 4 hilabeterako liburutegirako arduradun bat kontratatu behar du. Arratsaldeko 18.30etatik 20.30etara bete beharreko lana izango da. Lanpostu hori lortu nahi duenak ondoko baldintzak bete beharko dituzte: 18 urte beteta edukitzea, herrikoa izatea eta izena ematerakoan langabezian egotea. Ikasketei dagokien gutxienez UBI edo Lanbide Heziketako bigarren mailako ikasketak eduki behar ditu eskatzaileak. Euskaraz hitz egiteko eta idazteko gaitasuna ere kontutan hartuko da. Izena emateko epea gaur bukatuko da.

Informatika ikastaroak

Herri-eskolan informatikako gela berriari probetxua ateratzeko, ikasle eta gurasoen tizat informatika ikastaroak antolatzeke asmotan dabil-tza. Oraingo hiru ikastaro hauek jarri nahi dituzte martxan: Oinarrizko informatika, Windows eta Word 6.0 testu prozesadorea.

Ikastaroak asteartetik ostiralera bitartean izango dira beti ere arratsaldeko 17.00etatik aurrera. 10 aste iraungo du ikastaro bakoitzak eta astean bi orduko klaseak izango dira. Taldeak osatzeko gutxienez 4 eta gehienez 8 lagun beharko dira. Diruari dagokionez, partaide kopuruaren arabera izango da.

Gehienez 1.500 pezeta ordaindu beharko da.

Xabier Urteaga

GABIRIA

Iñaki eta Etxahunen heriotzak bihotzak urratu dizkigu

Herri txikia da gurea, la-rehun bat biztanle besterik ez, guztiok ezagutzen dugu elkar eta, ondorioz, herri txiki batean bizi denak erraz asko ulertu ahal izango du bi mutil gazteren bat-bateko eta ustekabeko heriotzak zer-nolako zirrara eragin duen guztiongan.

Larunbat gaueko istripuaren lehen oihartzunak igande goiz aldera hasi ziren barreiatzen, ipar aldetik zetorren euri-erauntsiarekin nahastuz: telefono deiak, irratiko albisteak, esne saltzaileen eta ogi erosleen arteko kontuak, denek mintzagai bakarra: herriko bi lagun heriotza.

Amesgaiztoa edo errealtatea, irentsi ezina eta irentsi beharra, mila galdera eta erantzuna bat bera. Barrena hutsik, begiak malko eta bi gazte lerden hilotz ilunabarraren etsipean errepide bazterrean.

Bihotza lauso, ezpainak mutu, amorrua eta ikara, ezintasuna isiltasunari gain hartuz eta berriro milaka galdera. Erantzun bat bera. Odol gorria bi gazteren gorputzetan borborka, bi sendi hautsirik eta eguna argitu ezinik gabiriarron bihotzean. Oinazea eta etsipena.

Eliza Nagusia konpontzeko asmoa

Herriko eliza nagusiaren egoera benetan txarra denez, batez ere teilatu nagusiarena, azken sei urte hauek gogor aritu dira lanean. Diputazioko arduradunekin eta Gotzaiarekin bilerak eginez, eginkizun horretarako izendatutako batzordeki-deak.

Aurten arte ezer askorik lortu ez badute ere, oraingoraino badirudi Diputaziokoek agindu dietela aurten hamar milioi emango dizkietela eta datorren urtean beste hamar. Diru hori guztia teilatu nagusia konpontzeko izango litzateke, baina lan ho-

rren aurrekontua 35 milioi-koa denez, ikusi egin beharko litzateke gainerantzeko diru kopurua nola lortu.

Hori dela eta proiektu bat aurkeztu beharra dago Diputazioan martxo bukaera baino lehen eta proiektu hori bi milioi kostatuko litzatekeenez, Eliz Batzordeak herritar guztiei, bertan nahiz kanpoan bizi direnei, dei egiten diete datorren larunbatean, otsailak 28, arratsaldeko 8etan, elizan izango den bilerara etor daitezkeen premia larria duen gai hori denon artean eztaba-datzeko eta erabakiak hartzeko.

Gabino Murua

ATAUN

Ataungo udalak bultzatzen duen beka honetara ikerlan historikoak, etnologikoak, soziologikoak, biografikoak... aurkez daitezke, gure herria aztergaitzat duten lanak izan behar dutelarik. Izan ere, haxe baita aipatutako bekaren helburua: Ataun hobeto ezagutzea. Deialdiaren oinarriak, ondorengoak dira:

Proiektuak 1998ko maiatzak 9 baino lehen aurkeztu behar dira Ataungo udaltxean.

Lana bakarka ala taldean egindakoa izan daiteke.

Proiektua aurkezteko beharrezkoak diren kartazalak eta fitxak udaletxean jaso behar dira. Kartazal txikian, datu pertsonalak eta lanaren izenburua azalduko dira eta handian, berriz, lanaren aurkezpena, eskema, helburua eta laburpen bat bilduko dituen fitxak. Kartazal handian ezin izango da egilearekin erlazioa daitekeen inolako erreferentziarik eman.

Aukeratutako lanak 1998ko abenduaren 15era-ko erabat bukatua eta Ataungo udalaren esku egon behar du.

Lan horrek gutxienez 50 orrialde izan behar ditu eta gehienez 150. Din A-4, 2ko tartearekin eta makinaz edo ordenadorez (font 12) idatzirik aurkeztu beharko da.

Beka 200.000 pezetetako da eta lana amaitutakoan emango zaio egileari.

Epaimahaia honako hauek osatuko dute: Kultura batzordeko arduradunak, Joxe Miel Barandiaran ikastetxe-ko zuzendariak, J.M.B. Murkondo kultur elkarte-ko lehendakariak, Artadi kultur elkarte-ko ordezkariak eta zenbait adituk bere kasuan.

Epaimahaiak erabaki dezake bekarik ez ematea, aurkeztutako proiektuen maila ez delako nahikoa edota aukeratutako lanaren emaitza ez delako egokia.

Saritutako lanaren jabetza eta gainerako eskubideak Ataungo udalak bereganatuko ditu eta horien artean sartzen dira, hain zuzen ere, lana lantzeko erabilitako dokumentazio, grabazio eta argazkiak.

Ataungo udalak ikerlanak argitaratzeko ardura eta eskubidea izango du.

Deialdian parte hartzen duenak, parte hartze hutsagatik, aurreko lefroetan esandakoarekin bat datorrela adierazten du, sor daitekeen edozein eztabaidaren aurrean Ataungo udalak izango duelarik azken erabakia.

IV. Ataun aztergai beka deialdia



ko 7.00etatik aurrera: 'Handitzen naizenian... irakasleak ume' (3. eta 4. mailakoen eskutik), 'Mito, mito eta kitto' (5. mailakoenetik) eta 'Amonaren urtebetetzea' (6. mailakoenetik).

Ikastaroak

1998. urtera begira ondorengo ikastaro hauek antolatze-ko asmoa du Ataungo udalak: **margolaritza** (ostiralean, arratsaldeko 6etatik 8ak bitartean), **sukaldaritza** (larunbatetan, goizeko 10.30etatik 12.30etara), **egur pintaketa** (asteartetan, arratsaldeko 6.00etatik 8.00etara) eta **egur taila** (asteazkenetan, arratsaldeko 6.00etatik 8.00etara). Ikastaro bakoitzaren iraupena 24 ordukoa da eta 3.000 pezeta kostatzen du. Parte hartu nahi duenak Udalak etxetik etxera helerazi digun fitxa bete eta udaletxean utzi behar du otsailaren 28 baino lehen. Ikastaroak martxoan hasiko dira. Bukatzeko, kontutuan hartu ikastarook 16 urtetik gorakoentzat direla eta gutxienez 6ko taldeak egitea beharrezkoa dela ikastaroa martxan jartzeko.

Antzerkia eskolan

Ostiral honetan, otsailak 27an, 3 antzerki emanaldi izango dira eskolan iluntze-

Santa Ageda

Aurtengo Santa Ageda eskean atandarrok izan genuen eskuzabaltasuna eskertu nahi izan digute Inaxito Aierberen lagun eta sendiak. Izan ere, herriko hiru auzoetan zehar 579.259 pezetak bildu ziren eta diru hori gure herrikidearen gaitza sendabidean jartzeko erabiliko da.

Heriotzak

Aigoalde baserriko Valentina Zeberio eta Muñoa baserriko Karmen Tolosa hil zaizkigu orain gutxi. Beren sendikoekin bat egiten dugu euren nahigabearen.

Jexux Jauregiren urtemeza

Igande honetan, martxoaren 1ean, herriko parrokoa izan genuen Jexux Jauregiren urtemeza izango da San Martingo Elizan. Ondoren, omenaldi bezala, bere senitarteko eta lagunekin bilduta bazkaria izango da.

Josune Aldabe

Bateak Taldea
SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Hirigoien, 12 LAZKAO
Tfnoa.: 88 86 20 Faxes: 88 91 18
Tfno. mugikorra: 908 57 91 92

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 882007 BEASAIN



SEGURA

'Mutrikuko Kondea'ren bixita

Aste honetan hil den Jose M^a de Areilzak 1971ko abuztuaren 15eko 'El Diario Vasco'n Segurari buruzko artikulua idatzi zuen. 2. karlistadan, 1873an, amaren aldeko aitona, Segurako kanpandorrean ejerzito liberalaren zaindari zegoela, balaz larri zauritu eta bertan koltxoi batean etzan behar izan zutela aipatzen du. Ez zen, ordea, hil. Segurar gehienak karlistak baziren ere ondo tratatu omen zuten bere aitona. Honen ondoren igoera eta domina ("Segura-1873" zioena) jaso zituen. Harrez-gero, gertaeren tokira itzultzeko nahia izan omen zuen baina inoiz ez zen bueltatu. Haren nahia, ordea, bilobak gauzatu zuen 1971ko abuztuan Segurako kanpandorrean izanez.

Azterketa

arkeologikoak

Etxez etxeko bixitekin jarraitzen badute ere, zulaketa arkeologikoak amaitu dituzte Aranzadikoek. Guztira, herriko gune arkeologiko interesgarrienetan 15 prospekzio egin dituzte. Balorazioa, laburbilduz: harresiak herriaren behealdean, alde batean zein bestean, oso argi azaltzen dira, baina goiko aldean ez dute harresiaren arrastorik aurkitu. Horretaz gain, burniarekin zerikusia duten elementu asko (labeak, sutegiak...) eta eraikuntzen egiturak ere aurkitu dituzte. Egindako guztiarekin txostena osatuta, Udalera pasako dute.

Ikastaroak

Eskulanak: urrian hasita, otsailaren 23an amaitu zuten arratsaldeetan aritu diren 15 lagunek. 2. ikastaroak, martxoaren 5ean hasita 12 aste iraungo ditu. Klaseak oste-



Mus, tute eta puntu txapelketa

Otsailaren 20an jokatu ziren, Atsedan Jubilatuen Elkartek antolatutako karta txapelketen finalak. **Musean:** Inazio Urbizuk eta Migel Goikoetxeak (Xabiñ Aldanondoren ordezkoa) irabazi zuten; 2. Joxe Urbizu eta Sebastian Garaialde. **Tutean:** Jose Palacios eta Manuel Imaz izan ziren irabazleak; 2. Eulajio Albisu eta Ximon Garaialde. **Puntuak:** Estanix Agirre eta Satur Arizkorreta geratu ziren lehenak; 2. Joxe Urbizu eta Sebastian Garaialde. Irabazleek, eskualdeko txapelketan parte hartuko dute. Argazkian, irabazleak euren trofeoekin eta partehartzaileetako batzuk.

gunetan, 14:30etatik 17:00etara izango dira Txanbolinpen, eta Iñaxi Urreta zegamarra irakasle dela, haria, pintura eta esmaltea landuko dira. **Lorazaintza:** martxo-ko 5 astelehenetan eman nahi da, 15:00etatik 17:00etara, Txanbolinpen, Joxan Garro irakasle dela. Bi ikastaro hauek, taldeak sortuz gero hasiko lirateke.

Txirrindularitza

Aurtengo denboraldian parte hartuko duten txirrindulari herritarrak, Arkaitz Sodupe, Iñigo Zabala, Unai Paredes, Alex Rekondo eta Jon Garziandia izango dira. Martxoaren 1ean hasita, Unai, Kaikun arituko da eta Arkaitz eta Jon, independente, 23 urtez azpikoetan. Alexek eta Jonek, jubeniletan korrituko dute Iberdrola taldean eta martxoaren 8an hasiko dute denboraldia.

Kirol eskolarra:

Tenisa: mutil eta neska alebinak final aurrekoetarako sailkatu dira. Joaneko partidua martxoaren 7an izango dute. **Pelota:** mutil infantilek 2. faseko 1go partidua irabazi zieten idiazabalarreri (18-9). **Krosa:** martxoaren 1ean, Lazkaon, Gipuzkoako txapelketa izango dute alebin eta infantilek. **Txirrindularitza:** martxoaren 7an hasiko dute denboraldia mutil alebin eta infantilek. **Trialsina:** otsailaren 21ean, Urretxun, mutil infantiletan 2. egin zuen Asier Izuzkizak eta alebinetan 4. Iñigo Izuzkizak.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Jubenilak:** Segura 1-0 Hondarribia. **Asteburuan etxean:** **Infantilak:** Aizkorri-Zarautz; jaien, 11:45etan.

Labur labur

● Otsailaren 11n egin zen **San Joan jaiak** antolatzeko lehen bilera. Bertan, festa egunak ekainaren 19, 20, 21, 23, 24 eta 25a izatea erabaki zen. Hurrengo bilera datozen astean izango da.

● **Bola:** Otsailaren 14an, Legazpin izan zen Goierriko bola txapelketaren 2. saioa, Joakin Izagirrek irabazi zuen 49 birla jota. Otsailaren 15ean, Gipuzkoako txapelketako 3. saioan, Jexux M^a Intxausti 3. eta Imanol Agirre 4. geratu ziren 45na birla jota.

● **Udal Liburutegia:** orain arte liburutegiko arduraduna izan den Kontxi Artolaren lekua, otsailaren 16an hasita, Alazne Goikoetxeak bete du. Liburutegiak, astelehen, astearte eta ostegunetan, 18:30etatik 20:30etara jarraituko du zabalik.

● **Ardixarrane:** otsailaren 19an aurkeztu zen etxea berritzeko proiektua Hirigintza Batzordean. Proiektua bera 2,5 milioi kostako da eta ondoren etorriko litzatekeen gauzatzea, horniketa kontutuan izan gabe, 42 milioi. Bestalde, pasa den astean Aranzadikoek, bertan azterketa arkeologikoa egiten ari zirela, gaur egungoa ez den beste ate bat bistaratu zuten.

● Martxoaren 26tik 29ra burutuko den **"III. Iparra-Hegoa"**rako, besteak beste, Iparraldekoen eta Hegoaldekoen arteko futbol partidua antolatu da. Bertan parte hartu nahi dutenek Elorripen eman dezatela izena.

● Udalak, trakzio mekanikoko ibilgailuen **udal zerga** martxotik apirilera bitartean kobratuko du.


Joseba Telleria

I. Igartza Literatur Sorkuntzako Beka idazle berrientzat

Beasaingo Udalak, CAF enpresaren babesarekin eta Elkarlanean argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz, I. Igartza Literatur Sorkuntzako Beka sortu du idazle berrientzat. Bekak, 500.000 pezetako diru-laguntza izango du.

Otsailaren 20an egin zen idazle berriei zuzendua dagoen I. Igartza Literatur Sorkuntzako Bekaren aurkezpena. 1994tik 1996ra bitartean, Abenturazko eta Misteriozko eleberririk lehiaketa izan zen Beasaingo Udalak antolatutako Igartza sariketa. Lehenengo urtean bakarrik izan zuen irabazlea, Jon Arretxe 'Tubabu' lanarekin. Hurrengo bi urtetan saririk eman ez eta ia zoko urtea, hausnarketaren urtea izan zen, Patxi Plazaola Beasaingo Euskara zinegotziak adierazi zuenez. Elkar argitaletxearekin harremanetan jarri eta birmoldatu egin dute Igartza sariketa.

Idazle berriak saritu nahi ditu Beasaingo Udalak. Horretarako 500.000 pezetako beka emango du. Aurreko edizioetan bezalaxe, CAF izango da dirua emango duena. Xabier Mendiguren



Patxi Plazaola Beasaingo Udaleko Euskara zinegotzia eta Txantxon Zubeldia Elkarlanean argitaletxeko ordezkaria, bekaren aurkezpenean.

Elizegi Elkarreko kideak azaldu duenez, idazleek gustokoen duten modalitatea bekarena da. Joseba Jakak literatur beka ere badagonez, eremua mugatu egin nahi izan dute Beasainen. Adin muga jarri dute, 35 urtekoa. Adin tarte horretan idazle gutxi omen dago eta. Bekarekin batera, liburua argitaratuko du Elkarlanean argitaletxeak.

Oinarriak

35 urtez azpiko idazle berrientzat dago zuzendua beka. Aurretik lan argitaraturik izatekotan, bakarka bi liburua baino gehiago ez ditu argitaratuak izan behar.

Narratibazko lanak (eleberririk edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak aurkez litezke, beren zatiren bat edota osotasunean inon argitaratu gabea dutenak, sarituak izan ez direnak eta beste inondik moldatuak ez

direnak. Partehartzaile bakoitzak, hiru aldakitan eta bere benetako izena agerian jarri gabe, ondorengo agiriak aurkeztu behar ditu bere proiektuarekin batera: landu nahi duen kontakizunaren azalpena, 2-4 orri bitarteko luzerakoa, egoki irizitako ezaugarriak zehaztuz, hala nola, argumentua, egitura, luzera, estiloa etab.; idazlanaren lagina edo erakusgarria, 15-20 orrialde bitartekoa; gutunazal itxia, kanpoko aldean idazlanaren izenburua izango duena eta barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta nortasun agiriaren fotokopia.

Proiektuak ekainaren 30a baino lehen bidali behar dira, Beasaingo Udaletxeko Euskara Zerbitzura (887512).

Andoni Egañak, Joan Mari Irigoienek eta Xabier Mendiguren Elizegik osatu-

ko dute epaimahaia. Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iriziz gero, beka eman gabe utz dezakete epaimahaikoek.

Bekako diru-kopuruaren erdia, izendatu bezain laster jasoko du irabazleak, eta beste erdia, idazlan amaitua entregatu eta epaimahaikoek onespina emandakoan. Irabazleak, izendapena jaso eta urtebeteko epea izango du gehienez, idazlan amaitua Beasaingo Udalari helarazteko. Luzera alde aurretik zehazten zaila bada ere, liburua osatzeko adina izan beharko du: 75 bat orrialde gutxienez. Bitarte horretan egileak hasierako proiektua aldatu nahi izango balu, epaimahaikoek jakinarazi beharko die aldaketaren berri eta haien onspina jaso beharko du.

Idazleak bere lana entregatuko ez balu, edo idazlan horren izaera eta kalitatea, epaimahaikoek iriziz proiektuan azaldutakoen aldean nabarmenkiro kaxkarragoak balira, idazleak itzuli egin beharko du jaso-tako dirua.

Elkarlanean argitaletxeak argitaratuko du idazlana eta egile-eskubideak ohiko moduan ordainduko dizkio egileari. Epaimahaikoek onspina ematen dutenetik sei hilabeteko epean kalera-tu beharko da liburua.

PUB
ASTI
Zaldizurreta kalea
88 45 06
BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA
ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea 88 60 70
BEASAIN

OSTEOPATIA
Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998
BIZKARREKO MINAREN ESKUZKO TRATAMENDUA
• LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
• ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.
R.P.S. 213/97
Eskatu ordua: (929) 45 20 53 - 88 92 22
Oriamendi, 3 - 2. ezk. - BEASAIN

MARTXOAREN lehen HASIKO DUTE GEHIENEK DENBORALDIA ATARRABIAN

18 txirrindulari goierritar talde afizionatuetan

Goierriko txirrindulari afizionatuen zerrenda egiten hasi eta 18raino iritsi gara, bidean bakarren bat ahaztuta utzi ez badugu behintzat. Talderik gabe independente gisan dabiltzanak ere hainbat dira, baina, denetara iristea ezinezkoa. Gehienak gazteak dira, aurten edo iaz igotakoak, haven 'aitona' Jon Etxeberria ataundarra da, hau du 9. denboraldia. Bere esanetan afizionatuen mailak asko eskatzen du, orain gehienak hortara bakarrik dedikatzen dira, bere mediku eta masajistarekin. Profesionaletara igotzen ez badira utzi egiten dute, baina bera afizio hutsez dabil konpetizioa gustoko duelako. Aurreaurrean edo atzeraxeago, afizioz eta gogoz dendoraldi ona egin dezatela.



Jon Etxeberria

Ataundarra, 26 urte, 9. urtea du afizionatuetan. Elektra, Vital Kutxa, Sicesal, Lur Kiro-

lak taldeetatik pasa ondoren Atarra-
biako Telco taldean da aurten. Osa-
sun arazoak direla-eta azken 3 urtee-
tan nahiko gaizki ibili ondoren, au-
rten disfrutatu egin nahi du oroitzapen
txarrak uxatzeko.



Beñat Garaialde

Beasaindarra, 18 urte, Lan-
bide Heziketa-
ko ikaslea. Iberdrolan 1go
urtea afiziona-
tuetan. Beti

talde berdine-
an ibili da, kadeteetan 19 lasterketa
irabazi zituen eta jubeniletan 7. Au-
rten ahal duena egingo du, taldeari la-
gundu eta aukeraren bat badu aprobe-
txatzen saiatu.



Axier Larrea

Beasaindarra,
20 urte, Lan-
bide Hezike-
tako ikaslea.
Aguilar tal-
dean dago eta
hau du 3. ur-
tea afiziona-

tuetan. Orainarte Irungo Transeta tal-
dean ibili izan da. Motorreko istripu
bat dela-eta 2 hilabete gelditu egon on-
doren indar gutxiarekin dago oraindik,
baina, sendatu eta ondo ibiltzeko
itxaropenarekin.



Mikel Gaztañaga

Itsasondoarra,
18 urte, Goierr-
i eskolan modulo
bat ari da egi-
ten. Jubeniletan
Iberdrolan 3

lasterketa iraba-
zi eta 5 2. postu egin ditu, igoeretan
arazoak izaten ditu. Pistan Euskadiko
txapelkun izan berria da. Caja Rura-
len afizionatuetako lehen denboraldia
du eta nola moldatzen den ikusi nahi
du, pelotoiean sartzen bada espre-
tan saiatu.



Zugaitz Ayuso

Itsasondoar-
ra, 18 urte,
txirrindu me-
kanikoa. Ju-
benil mailan
Gipuzkoako
itzulia eta

beste 2 lasterketa irabazi ditu. Ziklo-
krosean Gipuzkoako txapelketa ira-
bazi zuen eta pistan ere ibiltzen da.
Afizionatu mailan ez du presarik, bai-
na gogor lan egin eta ahal duen ondo-
ena ibiltzea du helburu. Caja Ruralen
1go urtea du afizionatuetan.



Ruben Gonzalez

Legorretarra,
19 urte, UBIko
ikaslea. Jubeni-
letan hasi zen
Irurok taldean
eta lasterketa
bat irabazi

zuen. Afizionatuetako lehen urtea
Born-Jay taldean egingo du. Helburu
bezala lasterketak bukatu eta zer ate-
ratzen den ikustea du.



Txomin Bartolome

Beasaindarra,
19 urte, hainbat
ikastaro egiten
ari da. Iberdro-
la taldean dago
eta Iruroken ere
ibilia da. Den-

boraldi hau 2.a izango du afizionatue-
tan, iaz debutanteetan 4.-5. postuak
egin zituen. Jubeniletan urtero laster-
keta bat irabazi zuen. Aurten zerbait
irabaztea ere burutik pasatu zaio,
saiautuko da behintzat.



Javi Gaston

Lazkaoarra,
21 urte, hau
du bere 4. ur-
tea afiziona-
tuetan. Jube-
niletan Elek-
tran ibili zen,
afizionatue-

tako lehen 2 urteak independente be-
zala egin zituen eta iaztik Donostiako
Aguilar taldean dago. Iaz bronkitis
bat zela-eta, pata ibili zenez, aurten-
gorako helburua aurrekoan baino ho-
beto ibiltzea du. Pixkanaka progres-
tzen joan nahi du eta 24 urte inguru-
rarte hor ibili, zaila iruditzen zaio bai-
na ez ezinezkoa. 2 gurpilek asko era-
kartzen dute.



Igor Aranburu

Beasaindarra, 19 urte, enpresaritzak ikaslea. 2. urtea du afizionatueta, iaz Iberdrolan ibili zen eta aurten

Arrasateko Born-Jay taldean. Ez du lasterketarik irabazi baina aurrean askotan ibili da. Iaz lasterketa gehienak bukatu zituen eta mailara ondo moldatu zenez, aurten zerbaite nabarmenagoa egin nahi du.



Anartz Mujika

Beasaindarra, 18 urte, Lanbide Heziketako ikaslea. Orain arte Iberdrolan ibilia, iaz jubentzetan Segura-

ko lasterketa irabazi zuen. Durango-ko Iturriaga taldean egingo du afizionatueta 1go denboraldia eta asmo bakarra maila berria probatu eta zer moduz ibiltzen den ikustea du.



Xabier Sarasola

Ordiziarra, 19 urte, Lanbide Heziketan bukatu ondorengo ikastaroa ari da egiten. Kadetetan Iberdrolan

(2 garaipen), jubentzetan Iruroken (garaipen 1) eta afizionatueta hau du 2. denboraldia Caja Ruralen. Iaz erorketa bat zela eta, 2 hilabete geldiegon bazen ere, lasterketa batzutan 10 lehenetan sartu zen. Aurten lesioek errespetatzen badute, 2. mailakoetan aurrean ibiltzeko asmoa du, 1go mailakoetan berriz ikastekoa.



Jon Ormaiztegui

Zaldibitarra, 18 urte, Lanbide Heziketako ikaslea. Jubentzetan hasi zen Irurok taldean, 10 lehenetan

sartu zen zenbait lasterketetan. Afizionatueta 1. denboraldia Tolosako Tradipa taldean egingo du, helburu bezala lasterketak bukatu, kirola eginez ondo pasatu eta ahal duen ondoena ibiltzea du.



Xabier Elorza

Ormaiztegiarra, 18 urte, Lanbide Heziketako ikaslea. Tolosako Tradipa taldean arituko da aurten.

Afizionatueta lehen denboraldia du eta helburu bezala lasterketak bukatu eta afizionatuen kategorian probatzea du. Orain arte Iberdrola taldean ibilia.



Jurgi Ruizmendi

Lazkaoarra, 19 urte, delineazio modulo bat egiten ari da. Tolosako Tradipa taldean hau du 2. denboraldia.

Iberdrolan eta Iruroken ibilia, jubentzetan 3 lasterketa irabazi zituen. Iaz afizionatueta nahikoa pata ibili omen zen. Aurten ere ez du itxaropen handirik, ikasketak jarraitu nahi ditu eta txirrindularitza afizio bezala bakarrik hartu, igotzea oso zaila baita.



Unai Paredes

Segurarra, 18 urte, Lanbide Heziketako ikaslea, 1go urtea du afizionatueta Kaiku taldean. Orain

narte Iberdrolan ibili da eta iaz lasterketa bat irabazi zuen. Aurtengorako dituen asmoak taldeari lagundu eta kategoriara moldatzea dira.



Koldo Camacho

Beasaindarra, 18 urte, Lanbide Heziketa koikaslea. Tolosako Tradipa taldean arituko da aurten.

Afizionatueta lehen denboraldia duenez, hori zein mundu den ikusi eta lasterketak bukatzea beste asmorik ez du. Orain arte beti Iberdrola taldean ibilia da.



Dioni Galparsoro

Ataundarra, 19 urte, hizkuntzak ikasten ari da. Hau du bigarren denboraldia Kaiku taldean. Iaz sa-

beleko infekzio bat zela eta, 12 lasterketa bakarrik bukatu zituen eta 5etan 10 lehenetan sartu zen. Jubentzetan, Iruroken, 1go urtea geldiegon zen lesioengatik, 2. urtean denboraldi erdia bakarrik egin zuen eta 3 lasterketa irabazi zituen. Aurten ondo ibiltzea espero du, baina aurrean ibiltzeko esprintean huts egiten du.



Aitor Perez

Zegamarra, 20 urte, Lanbide Heziketako ikaslea. 3. urtea du afizionatueta, Olarra-Orbea taldean. Jubentzetan, Irurok taldearekin 2 lasterketa irabazi zituen eta iaz afizionatueta lasterketa bat irabazteaz gain, Profesionalekin batera Riojako itzulia korritu zuen. Aurten afizionatuen 1go mailan egongo da eta aurrean ibiltzeko itxaropena du.



Ordiziako Jakintza ikastolako ikasleak

1975ean jaiotako ordiziarrek dira, Jakintza ikastolako ikasleak. Ikasturte bukaeran Erriberrira edo Olitera joan zirenekoa. 9-10 urte dituzte argazkian.

Zutik, ezkerretik eskubira: Oihana Goenaga, Miren Martin, Josu Alustiza, Iker Iraola, Xabier Sabino, Sorkunde Arze, Silvia Rebollo, Olatz Aldasoro eta Ainhoa Arze.

Atzeko lerroan eserita: Gorka Gorrotxategi, Rakel San Sebastian, Olatz Oiharbide, Ekain Ibisate (motxilaren atzean), Kepa Mujika, Estibaliz Insausti, Oihana Izuzkiza eta Alaitz Iturrioz.

Erdiko lerroan: Arrate Ortega, Asier Martin, Jose Ramon Calabuig, Igor Eguren, Omar Bartolome eta Maider Iraola.

Aurre-aurrean: Naiara Insausti eta Aitziber Zurutuza.


ORDIZIAKO



Kale Nagusia, 10

SUKALDEKO ALTZARIAK

Sukaldea berritu nahi duzu? Zatoz eta ikus ezazu gure erakusketa



Taldekoa

☎ 88 23 00

ORDIZIA

ZALBIDE

SAGARDOTEGIA

Txitxarro eta sardinak parrilan



☎ 65 21 76

ABALTZISKETA




☎ 88 96 67

ZALDIBIA

GOIERRITARRA



88 96 12



BERGARA
Barrenkalea, 35
☎ 76 03 98



BEASAIN
Nafarroa Etorb., 1
☎ 88 48 65



ARRASATE
Otalora z/g
☎ 79 11 72

OSKARBI



Mota guztietako eta adin guztietarako otetalmak.

Kickers

E. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 ORDIZIA

matrikula zaitez



Goierriko Ikastola batean

- ✓ Euskal Eskola Propioa, bertatik gestionatzen dena.
- ✓ Kalitatezko heziketa euskalduna eta eleanitza.
- ✓ 2 urtetik hasita, Unibertsitate bitarteko ikasketak.



☎ 88 96 17

E. mail: beasain@ikastola.net



☎ 16 05 40

E. mail: ordizia@ikastola.net



SAN BENITO IKASTOLA

☎ 88 08 00

E. mail: lazkao@ikastola.net

ORAIN PRYCAN FITXA EZAZU PEPSIRENGATIK ... ETA IRABAZI EZAZU OPARI SEGURUA



OPARI
SEGURUA
12 LATA
EROSIZ GERO



FRESKAGARRIA: PEPSI
NORMALA, KAFEINAGABEA,
LIGHT EDO MAX.
33 ZL-TAKO LATA

37



PEPSI NORMALA, KAFEINAGABEA,
LIGHT EDO MAX-ETAKO 12 LATA,
EROSTEAGATIK

JASO EZAZU ZURE "RASCA"
INFORMAZIOAN ETA HAUETARIKO
OPARI BAT EDUKIKO DUZU.

ZU ERE DEITUA ZAUDE

